

# Pattinen bokheta

(KOMEDIA TTIPI BAT)

PATTIN, etxeko nausia;  
KATIXA, haren emaztia;  
XOBADIN, amaizuna.

## I

**PATTIN**, baxharrik: Bi milatia! Ni zerk huntaratu nu? Ifernuko deubru zaharrak egin du beretarik ene ezkontzeko egunian. Orduz geroztik ez dut bake limarrik, zorion izpirik. Atso horien sukar-furia!... Batian emaztia erasian oihuka, bestian amaizuna garrasioka.

Bat elhetik athertu orduko bestia lotzen da heiagoraka. Eman hor, kalaka zarra; hats-bahi, eta bethi mintzo. Mihipeko zaina ez ahal zaun trenkatuko!... Zahurrek janik dago ene bizi herresta. Eta ni bethi petzero, uzkipitzer!... Ez othe da gizona gizon saskipetik ere? Altaa behin kexatzen baniz...

## II

PATTIN, KATIXA eta XOBADIN

**KATIXA**: Zer! zure buruarekin elheketeta? Igi norapeit, alfer tunante, etxe jalia. Has lanian.

**PATTIN**: Zer lan?

**KATIXA**: Hauxe da galdia, Musde Janfutre. Etxe guzia gain-azpikatua, zokho horiek urdia bezein zikhinak, eta oraino galdeka, haur troxatu berri bat iduri, ahoa zabalduz, begi alimale batzu larrituz... «Zer lan?» ori, zer lan?...

**XOBADIN**: Jakinen duzu ene alaba xuxen mintzo dela. Aingeru hutsa da, gixakoa, ixila.

**PATTIN**: Uste nuke!

**XOBADIN**: Gixakoa, ixila eta sobera prestua zu bezelako senhar herrementa batentzat.

Frangotan uzten zitu jats giderraz panpapakoak eman beharra...

**PATTIN**: Baduzia burutik? Jats giderraz, eni, gizon bati?

**XOBADIN**: Eta zendako ez? zure ona bilhatzen du Katixak eta zinez maite duenak badaki kaskakoen emaiten... Etxe batean emazteak dauzka gobernioko gider guziak...

**PATTIN**: Hala-nola jatsarena gizonaren joiteko!

**XOBADIN**: Ixo! eginen dituzu emazteak manatu lan guziak.

**PATTIN**: Nundik deubru! Buliga bezala nahasia niz. Biak batian mintzo zirezte eta ez da halako barazuza uharrik nola baitira zuen atheraldiak. Nik ixildu behar eta zuek bethi oilateiko haga bezen garbi!

**XOBADIN**: Hola denaz gainian buru-fuñen freskatzeko izkirioz hartuko dituzu Katixaren manamenduak.

**PATTIN**: Jainkoaren eta Elizaren manamenduen aldean?

**XOBADIN**: Ixo! eta hitzez-hitz obratuko dituzu paper hartan ezarriak.

**PATTIN**: Bego paso eta goazin hortarik. Bakia erosiz on da. Adimendu sendoaren jabe zira, Xobadin amultsua, Huna paperra; mintza beraz; dena beharri niz.

**KATIXA**: Izkriba zozu, goiz guziez lehenik jeikiko zirela, sua phiztuko.

(*PATTIN xutitzen da eta firrindaka botatzen du luma*) Debruetarat! ni lehenik jeikiko eta sua phiztuko? Zer kariaz othe?

**KATIXA**: Ene zaiaren berotzeko. Aditu duzu? Nun da jatsa?

**PATTIN**: Eztiki, ez bero. Izkribatuko ditut nahi dituzun guziak. Ezar dezogun beroz «zure

zaiaren berotzeko». Bekhatu litake mafrunditzen bazine, ene bihotzeko pinpili-panpalañoa, muxulin zerutikakoa, xu!

**KATIXA:** Ixo! zozo-pilikinzoa! Ez niz trufa-gose eta ar aitzina!

**PATTIN:** Zaude, ankrerik ez dut; lehen hitzetan niz oraino.

**KATIXA:** Haurra iratzarten den aldi guzietz, balakatuko duzu, amultsuki jostatuko harat-hunaka ibiliz, arrabotsik egin gabe.

(*PATTINEK harrotzen du paperra*) Hunek badu behar ez den zerbeit, eskualde bat eria...

**KATIXA eta XOBADIN:** Beharko duzu oraino...

**PATTIN:** Jainkoaz othoi! emazue aldizka!

**KATIXA:** Mintza zite, ama.

**XOBADIN:** Ez balinba! ez da eni manatzia. Pattin zure senharra da.

**KATIXA:** Pegarra betheko duzu.

**XOBADIN:** Bahoka edanaraziko.

**KATIXA:** Lapinen phazka bilduko.

**XOBADIN:** Xerriak phazkatuko.

**KATIXA:** Egurrak xehatuko.

**XOBADIN:** Phorru-pastinagriak ekharriko eta kozina on bat eginen, gatzbipherrak izarian ezarriz, ogi-bustirik hartu gabe eta tturrila hura kitzikatu gabe. Azken puntu horri begi atxikiko dugu.

**PATTIN:** Nik sinhets!

**KATIXA:** Begi atxikiko dugula. Egundainoko molts'ondo gorienak ximurtu dira gizon edale batzuen faltaz.

**PATTIN:** Nik ez dakit bainan, mihi gaixtoek diote etxe-alde hoberenek peko erreka jo dutela emazte tzar batzuen gatik, badirela gizonak sobera prestuak, zaharo ukhaldika ibili behar litazken emazte saltsero batzuen esku-makhila bilhakatuak eta bertzalde...

**XOBADIN:** Azken hori soberakina duk! Nun da jatsa?

**PATTIN:** Ja! ja! Ez niz zuretzat mintzo gero. Ez ahal zirezte piru hortakoak, zuek, nolako presuna baliosak eta jite aberatsekoak...

**KATIXA:** Elhe auher guti beraz eta izkriba aintzina. Haurraren xatarrak murruskatuko dituzu...

**XOBADIN:** Zuharek xuriturik idorraziko...

**PATTIN:** Alainan! Hasiz geroz, zendako ez? Dudarik ez da joanen zireztela othe pikatzerat ene orde?

**KATIXA:** Nork egundaino ikhusi du holakorik? emaztiak othe ephaiten? Ahantzi gabe bokheta ere trenpan ezarriko duzu, etxe guzia zilharra bezein garbi atxikiko.

**XOBADIN:** Erhauts birbira bat nihun utzi gabe.

**PATTIN:** Horiek oro eginen ditut, bainan, hitz derautzuet, ez niz manatu horietarik kantitzen. Gaineratiko lan guziak... ttutt! ez dut zotzik hunkitzen...

**KATIXA:** Erran bezala. Gau on, ama maitia.

**XOBADIN:** Bihar arte, gaixo haurra.

**PATTIN:** Bai hiri, ere Pattin. Egizak lo! lehen nigar-marrakak adituartino...

### III

PATTIN eta KATIXA

**KATIXA:** Hea, Pattin, lagun nezazu.

**PATTIN:** Zertan?

**KATIXA:** Oihal horien bokheta zubanaren barnian sartzen.

**PATTIN:** Andere Katixa, eztikixago othoi, dugun ikhus paperrian denez. (*Paperra hedatzen*)

du).

**KATIXA:** Haste zirikeria! Erna zite, beranta gorria dugu; behar ditugu oihalak bihurtu. Ez duzu berdin eskapurik: izkribatua da. Ala behar dautzut legea bizkarrean finkatu makhila-ukhaldika?

**PATTIN:** Eni makhilarik ez aipha zure onetan! Barkhatu, barkhatu, xuxen zira. Zola-zolan ezarria nuen: bokhetaren trenpan ezartzia...

**KATIXA:** Tira beraz oihal hau. Nun tuzu zainak, oilo busti, uli medikua?

**PATTIN:** Badut aski eginik; zain bat edo bertze behartuko zait indarka ariz...

**KATIXA:** Tira edo botatzen dautzut muthurrerat... (*Erran bezala egiten du*).

**PATTIN:** Busti pelotua niz; arropok fundituak... Hobeki zirea orai?

**KATIXA:** Ixo! loth zite berriz.

**PATTIN:** Atxikiko dut ene alderdia. Hea, nor den nagusi?...

(*Bastako tiratzen du eta Katixa erortzen da zubanaren barnerat*).

**KATIXA:** Gizen trukes, eskoila, ez bertzia...

(*Burua agertzen du*). Azken hatsetan niz... Pattin, zato laster ene atheratzerat.

Erna, Pattin, erna, zure emaztia ithotzerat doha, fite zure eskua...

**PATTIN:** (*bulta baten buruan*) Ez baita hatik hori paperrian...

**KATIXA:** Pattin, ene amodio bakharra, ene bihotzeko lilia, hel hel ene salbatzerat...

**PATTIN:** Ez baita hori paperrian. Arras untsa hiz hor, edazan zirrizta bat. Hupa, hupa.

Mariaño! Katixa, femme léchitime de Pattin il est dans le zuban et il boit dé l'eau.

(*Irakurtzen du paperra*). So egizan «Ixenik jeikitzia, suaren phiztia...»

**KATIXA:** Hel, Pattin, hel, hotzikharak zainetan!...

**PATTIN:** (*irakurtuz*) Zaiaren berotzia...

**KATIXA:** Ura gaindi beharrietan barna...

**PATTIN:** ...Pegarraren bethetzia.

**KATIXA:** Pattin, ura ahotik eta begietarik!...

**PATTIN:** (*bethi irakurtuz*) Behokaren edanaraztia, xerrien phazkatzia, egurren xehatzia...

**KATIXA:** Pattin, barne guzia nahasia dut, gorputza dal-daran... hel! hel!

**PATTIN:** Bainan, emazteki bitxia, hauxe da thema, ez dela paperrian!

**KATIXA:** Akhabo! hil da zure emaztia. Adios sekulakotz. Hou hou! Ifernurat johan zira. Pattin, habil, habil, itxindu gorria. Ithotzerat utzi duk hire emaztia...

**PATTIN:** Ifernurat? zer derasan ifernurat? hire orde? Ez dun holakorik paperrian (*Irakurtzen du*) «Ogi bustirik ez hartzia, tturilaren ez kitzikatzia» are gutiago bokhetako zubana, emaztia han delarik barnian! Bon foijache, Katixa eta sans adié... Xo! borthan joka...

## IV

### PATTIN, XOBADIN eta KATIXA

**XOBADIN:** Hea, idok bortha hau.

**PATTIN:** Ez da paperrian. Idokiko dut halere ikhus dezazun nolako plantan den zure alaba...

**XOBADIN:** Heldu niz nere begiez ikhusterat nola johan diren gauzak...

**PATTIN:** Ezin hobekiegi! Ene emaztia hila da...

**XOBADIN:** Zer diozu? Ez niz irrigura.

**PATTIN:** Ni segurik ba. Elheketa ari zelarik, zubanaren barnerat erori da, egarria baitzitaken.

**KATIXA:** Ama, ni hemen, zato, zato...

**XOBADIN:** Heldu niz, haurra. Pattin, emazu esku-ukhaldi bat.

**PATTIN:** Ez da paperrian lan hori.

**XOBADIN:** Errazu berriz, infamio, odol edalea. Hilitzerat urtzen duzula zure emaztia?

**PATTIN:** Ba naski! Nagusi bakhar izanen niz...

**XOBADIN:** Erhotu zirea?

**PATTIN:** Xuxen-xuxenian...

**XOBADIN:** Alon! traidore beltza, ahuspez othoitzen zitut (*belauniko jartzen da*).

**PATTIN:** Beraz hemendik-harat ni xapeldun, oroton nagusi?

**XOBADIN:** Baietz eta gu biak zure meneko.

**PATTIN:** Egin dezagun bertze paper bat.

**KATIXA:** Hatsa! Hatsa!... ez du balio, fida zite...

**PATTIN:** Beraz amor emaiten duzu, Katixa, ziren bezalako lixtafin galdua? Ezagutzen dituzu ene zuzenak?

**KATIXA:** Baietz eta baietz! Hatsa! ni bethi zubanaren zolan!

**PATTIN:** Aithortzen duzu sobera lan zela gizon batentzat; esneketariaren astoa ni baino usago zela?

**KATIXA:** Ba, Pattin, barkha, miletan barkha...

**PATTIN:** Katixa, lehenik jeikiko zirea?

**KATIXA:** Bo, eta kofia zuri oherat ekharriko.

**PATTIN:** Sua phiztuko duzu?

**KATIXA:** Baietz, zure galtzen berotzeko!

**PATTIN:** Kabalak pazkatuko?

**KATIXA:** Baietz, zure auher utzeko.

**PATTIN:** Ihargiez artha hartuko?

**XOBADIN:** Segurki baietz, Pattin, zure larru mehearen beiratzeko.

**PATTIN:** Beraz akhabo erasiak eta muthur saldak?

**KATIXA:** Hemendik harat poxirik hoberenak zuretzat, tturila zure gain eta gure esker ona bertzalde.

**PATTIN:** Aski hitzemanik oroi, erranak obra (*Atheratzen du Katixa zubanetik*).

J.-B. MENDIZABAL